

“Naturan ez dago ez saririk ez zigorrik, ondorioak soilik.”

R.G. Ingersoll

# Naturgune babestuen kudeaketa eta nekazaritza-iharduerak

Aitor Bengoa Ansa\*

*Nekazaritza eta ingurugiroa. Bi hitz, bi arlo, bi esparru, hauen esanahiak ongi definiturik dauzkagu eta elkarrekin, ezer gutxi esaten digute. Izatez, lagun zaharrak badira ere, bereizita ibili izan dira azkenaldi honetan. Bakoitzaren ibilbidea ikusirik, ordea, bata bestearen beharrea dira eta berriro adiskidetzeko garaia iritsi zaie. Gizarteak estimatuko du ituna, baina ez du naturaren saririk jasoko...*

L. Astorkia



**N**eolitoaz geroztik, gizakia, abeltzain eta nekazari bihurtu zenetik, bere ingurunea eraldatzen joan da. Gaur egun, Euskal Herriko ia paisaje guztia, dena ez esatearren, gizakiak buruturiko iharduera desberdinen emaitza da.

Garai batean, nekazaritza eta abeltzaintzaren eboluzioan gertatzen ziren berrikuntzen aurrean, nekazariak eta naturak aldaketak jasan eta orekatzeko gaitasuna izaten zuten.

Gaur egun gertatzen diren berrikuntza eta eraldaketa gehienak, ordea, askoz azkarrago doaz eta ez daukagu ez denborarik, ez teknologiarik ezta jakinduririk ere horiek guztiak gure ingurunean txertatu eta ondorioak neurtu eta baloratzeko. Ondorioz, hainbat nekazaritza-ustiapen intentsiboek kalteak eragin dituzte ingurugiroan.

Horra hor paradoxa: gaur egun babestu eta zaindu nahi ditugun paisaje eta ekosistema asko, urte askotako nekazaritza-ihardueren ondorio dira eta preseski, gaizki bideraturiko nekazaritza-ustiapenak izan daitezke bertako etsai.

## Naturgune babestuen sorrera

Naturguneak babestu eta kudeatzeko erabakiak nahikoa berriak dira Euskal Herrian. Ohizko nekazaritza-iharduerak bultzatuz, ingurunea kontserbatu eta aldi berean bertako biztanleen garapen sozioekonomikoa bermatzeko asmoz sortu ziren naturgune hauek.

Euskal Herriko administrazio desberdinek irizpide desberdinak erabili izan dituzte naturguneak babesteko garaian.

Batetik, Euskal Autonomi Elkartearen, Parke Naturalen eredu erabili izan da, eremu zabalak babestuz. Era honetara, kontserbazioa eta garapen ekonomi-

A. Elosegi



Gaur egun Euskal Herriko ia paisaje guztia, dena ez esatearren, gizakiak buruturiko iharduera ezberdinen emaitza da.

koa uztartzen saiatu dira. Bestetik, Nafarroan, azalera txiki-kiko lur-sailak babestu dira, batez ere. Kasu honetan, irizpide ekonomikoak alde batera utzi eta ekosistema, bitxikeria geologiko edo espezie jakin batzuen babesa bultzatu da. Eta, azkenik, Iparraldean, oraingoz, ez da juridikoki babestuta dagoen naturgunerik sortu.

### *Euskal Autonomi Elkarte*

Aitzindaria Urdaibaiko Biosferaren Erreserba izan zen, 1989. urtean, UNESCOren MAB programaren ereduari jarraituz izendatu zena. Helburu nagusia hango ekosistema eta ohizko giza ihardueren osasuna egoera onenean mantentzea zen.

1989. urtean, Espainiak Ereku Babestu eta Animalia eta Landare Basatien Kontserbaziorako

4/1989 Legea onartu zuenean, naturguneak babesteko tresna juridiko berriak sortu ziren. Lege horren berrikuntza nabarmenena Natur Baliabideen Antolamendu Plana (NBAP/PORN) sortzea izan zen. Edozein ingurune juridikoki babestu aurretik derrigorrezkoa da NBAP hau egitea eta lehentasuna izango du beste edozein lurralde-antolaketa-planen aurrean. Plan honetan aipatzen dira, besteak beste, babesturiko eremuaren muga fisikoak, bertako kontserbazio-egoera, ihardueren arautegia, kontserbazio-irizpideak, etab. Dena den, NBAPren egin behar nagusia babestu nahi den ingurunearen

## NEKAZARITZA ETA NATURGUNE BABESTUAK

# G

aur egun eta Euskal Herrian gizakiak nola-bait eraldatu gabeko inguru zabalik ez zaigu geratzen; hala ere, gizakiaren eragin hori oso desberdina da inguru batzuetatik beste-etara eta, Natura aipatzen dugunean, berezko ekosistemak izango zirenetik gertuen daudenaz ari gara pentsatzen. Eta hauek nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzarako erabiltzen diren sailak izanik, Natura babestu nahi dugun bakoitzean iharduera hauek kontuan hartzea ezinbestekoa zaigu.

Ildo horretatik, duela bost urte Eusko Legebiltzarrean onartu zen lehendabiziko Euskal Baserrialdeko Plangintzan idatzi zen bezala, nekazaritzako elikagaien sektorea, habitat naturala eta biztanleria landatarra, elkar osatzen duten errealitate beraren hiru dimentsio dira. Ondorioz, Euskal Herriko Natura Babesteko Legeak, Naturagune Babestuez ari denean, bertako biztanleen garapen sozioekonomikorako egitarauak ezartzera behartzen du, ohizko ihardueren azpiegitura eta zerbitzu-mailak hobetu nahi badira bederen.

Horregatik, Naturgune Babestuetarako Antolaketa Planak eratzen direnean, nekazaritza-iharduerak mantentzea eta hobetzea dira kontuan hartzen diren helburu nagusiak. Azken finean, babes ikuspegitik ere, ekosistema horietako elementuak eragin hauetara egokitu dira mendeetan zehar eta beraien iraupena eta iharduera lotuta doaz.


Horren adibide argia gure mendietan dugu; Aralar eta Aizkorri bezalako mendietan interes handiko hainbat landare eta animalia ditugu eta hauetatik asko goialdeko larreetan, bertako larreetatik, bizi dira. Kontuan izanik larre hauek ez direla berezkoak, gizakien aziendak eratu eta mantentzen dituenak baizik, mendi hauetan larratzen den azienda gutxituko edo desagertuko balitz, ekosistema hauen oreka eten eta espezie askoren etorkizuna arriskuan jarriko litzateke.

Hegazti harrapari handiak ditugu espezie horien artean ezagunenak; hala nola, sai arrea, sai zu-

ria, ugatza edo arrano beltza. Hauen urritasuna dela eta, Naturgune Babestuen helburuetako bat horien iraupena ziurtatzea izango da. Horretarako, azienda eta artzainak mantentzea ezinbestekoa da. Horregatik, Aralar bezalako Parke Naturaletako fauna bitxia iraurazteko bide egokiena ohizko artzantza mantentzea da.

Baina iharduera horiek mantentzeko ahaleginak ez dira zeharkako helburuetan bakarrik oinarritzen, nahiz eta horiek garrantzitsuak izan. Gizarte honetan arriskuan daudenak ez baitira landaretza edo fauna bakarrik; artzantza edo nekazaritza bezalako iharduerak ere bai. Horregatik, Autonomi Elkartean natura babeste-

A. Bengoa Ansa



*"Parke Naturaletako berezko fauna iraurazteko bide egokiena ohizko artzantza mantentzea da".*

ko xedatu diren printzipioei jarraituz, Naturgune Babestuen ahalegin nagusiak habitat naturala eta biztanleria landatarra uztartzera joango dira.

**Iñaki Aizpuru**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuko teknikaria.

lurralde-zatiketa edo zonifikazioa egitea da. Hau da, naturgune batean babes-maila desberdinak izango dituzten eremuak egongo dira eta lurralde-zatiketa horre-

tan oinarrituko dira aurrerantzean gune jakin bakoitzean hartuko diren neurriak. Naturgune hauek izendatu eta kudeatzeko ardura administrazio

autonomikoen esku gelditu da, Parke Nazionalena izan ezik. Geroztik, Euskal Autonomi Elkartean, Parke Naturalen sorrera bultzatu da; Urkiola

(1989), Valderejo (1992), Gorbearia (1994), Aralar (1994) eta Aiako Harria (1995).

4/1989 Legea zabaldu, zehaztu eta gure lurraldera egokitzeko asmoarekin, 1994.eko ekainaren 30ean, Gasteizko Legebiltzarrak Natura Babesteko 16/1994 Legea onetsi egin zuen. Lege honen helburua, baliabide naturalen erabilera ordenatu bat burutuz, bertako ekosistema, landaretza eta fauna kontserbatzea da. Naturgune babestuei dagokienez, hainbat berrikuntza etorri da Lege honen itzalean. Hiru babes-maila finkatu dira: Parke Naturalak, Biotopoak eta Aparteko Zuhaitzak.

Arestian aipaturiko NBAP hori naturgunea babestu aurretik egin behar da eta izendatu eta urtebeteko epean, berriz, Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (EKZP/PRUG) eratu behar da. Plan honetan, ingurune babestuan baimentzen eta galerazten diren iharduerak zehazten dira. Halaber, bertako arautegia eta babes-irizpideak ere finkatzen dira.

Naturgune babestuen izendapena Eusko Jaurlaritzaren ardurapean dago eta beraien kudeaketa, berriz, dagokion Foru Aldundiarrenean.

Gaur egun EAEn lege honen babesean aipaturiko bost Parke Naturalak, lau Biotopo (Itxina, Biasteri, Leitzarar eta Inurritxa) eta 25 Aparteko Zuhaitz daude.

## Nafarroa

Nafarroako ingurune babestuen historia ezagutzeko 1976. urtera jo behar dugu, urte horretan garai hartako ICONAren konpetentzia batzuk Nafarroako Foru Aldundira transferitu baitziren. Ondoren, Arbaiungo arroila (1976) eta Pitillasko aintzira (1977), Ehizaren Legerian oinarrituta, erreserba biologiko izendatu ziren. 1984. urtean Ber-

A. Eloseg



**Euskal Autonomi Elkartearen Parke Naturalen bideari heldu zaio nagusiki; horrela, eremu zabalak babestu nahi izan dira. Aralarako Parke Naturala da horietako bat. 1994ko apirilean izendatu zuten Parke Natural.**


**Nafarroan azalera txikiko lur-sailak babestu dira, ekosistema, bitxikeria geologiko edo espezie jakin batzuen babesa bultzatuz. Pitillasko aintzira, erreserba biologikoa, horietako bat da.**

**Kakuetako arroila bezalako naturguneak dauden arren, Iparraldean ez da oraingoz juridikoki babestutako naturgunerik sortu.**

A. Eloseg



A. Eloseg



## EUSKAL HERRIKO INGURUNE

### ✓ URDAIBAI

*Babes-maila:* Biosferaren Erreserba  
*Izendapena:* 1989ko uztaila  
*Azalera:* 23.000 ha  
*Kokalekua:* Bizkaiko iparraldea. 22 udalerriren lurak sartzen dira erreserbaren baitan eta Oka, Mape, Artigas eta Laga ibaien arro hidrografikoez mugatzen dute.

*Ezaugarriak:* Mendetan zehar, bertako gizon-emakumeen iharduerekin modelatu duten ingurune dibertsoa da. Eremu txikian, ekosistema-mota desberdinak aurki ditzakegu. Bereziki garrantzitsuak dira bertako itsasadarra, itsasertza, artadia eta aztarnategi arkeologikoak.

Artxibokoa



### ✓ URKIOLA

*Babes-maila:* Parke Naturala  
*Izendapena:* 1989ko abendua  
*Azalera:* 5.988 ha  
*Kokalekua:* Bizkaiko hego-ekialdea eta Arabako ipar-ekialdeko eremu txiki bat. Aramotz-Ezkubaratzeko mendizerra, Mugarra eta Anboto mendiak eta Arangioko mendizerra sartzen dira Parke Naturalaren baitan.

*Ezaugarriak:* Baso-ustiaketa eta artzantza izan dira gaur egungo paisajearen eragile. Ingurune menditsua izaki, bertan ez da herri-gunerik finkatu. Goi-mendietan kararrizko hornez taxututako paisaje menditsua nabarmen-tzen da. Beherago, pagadi eta larre zabalak aurkituko ditugu. Azken urteotan Euskal Herri osoan landatu diren pinu-sailek ere ordezkariak bikaina dute Urkiolan.

A. Ellosegi




### ✓ VALDEREJO

*Babes-maila:* Parke Naturala  
*Izendapena:* 1992ko urtarrila  
*Azalera:* 3.418 ha  
*Kokalekua:* Arabako mendebaldeko Bur-gosko probintziarekin egiten du muga. Bere baitan, Lahoz eta Lalastra herriak daude. Villamardones eta Ribera, berriz, ez dira dagoeneko herri, aspaldi hustu baitziren.

*Ezaugarriak:* Kararrizko hormatzarrez inguratutako bailara zabala da. Pinudi, pagadi eta artadiak ditu mendimagaletan; ibarrean, berriz, gero eta gutxiago ustiatzen diren larreak. Piskanaka hustuz joan zen bailara; bertako biztanleak, nekazariak, Gasteiz eta Mirandara joan ziren lanera. Parke Natural izendatu zutenetik, berriro itzuli da gizakia Valderejora, baina ez justu lanera...

J. Larrañaga




### ✓ GORBEIA

*Babes-maila:* Parke Naturala  
*Izendapena:* 1994ko ekaina  
*Azalera:* 20.016 ha  
*Kokalekua:* Bizkaia eta Araba arteko mugan dago. Iparraldera Orozkoko bailara du, Ekialdera Arratiakoa, Hegoaldera, berriz, Zuia eta Zigoitiako bailarak eta, azkenik, mendebaldera, A-68 autopista eta Urkabustaizko bailara.

*Ezaugarriak:* Gorbeia tontorra erdi-erdian duen naturgune menditsua da. Euskal mendizaleek ongi eza-gutzen dituzten txokoak daude bertan. Ekosistema aipagarrienak Altubeko pagadiak, Itxinako ingurune karstikoa eta Gorbeia-gane eta Berretingo larreak dira.

A. Ellosegi





Artxibokoa

# BABESTU NAGUSIENAK

## ✓ ARALAR

*Babes-maila:* Parke Naturala  
*Izendapena:* 1994ko apirila  
*Azalera:* 10.956 ha  
*Kokalekua:* Gipuzkoako hego-ekialdea. Nafarroako mugan, Bedaio eta Ataun artean.

*Ezaugarriak:* Larre zabalez osoturiko paisaje menditsua. Bertako aztarnategi arkeologiko ugariak adierazten duten moduan, gizakiaren presentzia aspaldikoa da eremu honetan. Gaur egun, artzantzak berebiziko garrantzia du paisaje horren kontserbazioan. Geologikoki ere, balio handiko txokoak aurki ditzakegu, Ataungo domoa, Pardelutzko glaziar-zirkua, etab.

A. Bengoa Ansa




## ✓ AIAKO HARRIA

*Babes-maila:* Parke Naturala  
*Izendapena:* 1995eko apirila  
*Azalera:* 6.913 ha  
*Kokalekua:* Gipuzkoako ipar-ekialdea. Bidasoa eta Urumea ibaien artean. Ekialdetik, Nafarroarekin egiten du muga.

*Ezaugarriak:* Geologikoki interes handiko gunea da. Bertan daude Euskal Herriko material zaharrenetari-koak. Mazizo Paleozoikoa dugu, hots, hertziniar orogenia gertatu aurrekoak. Bertako baso gehienak ustiapen produktibistatik bideratuta daude. Dena den, baso naturalagoen arrastoak ere aurki daitezke Añarbe, Endara eta Oianlekun. Beste ezaugarri aipagarria, mehatze zaharrek osatzen dute, Arditurriko meheak, esaterako.


A. Elozegi



## ✓ BERTIZ

*Babes-maila:* Parke Naturala  
*Izendapena:* 1984ko martxoa  
*Azalera:* 2.040 ha  
*Kokalekua:* Nafarroako iparraldean, Bidasoa ibaiaren ertzean, Bertizarena udalerrian dago. Iparraldera Etxalarrekin egiten du muga, ekialdera Baztanekin, hegoaldera Bidasoa ibaiarekin eta mendebaldera, berriz, Bertizaranako lursailekin.

*Ezaugarriak:* Parkearen baitan, nahikoa natural mantendu diren basoak daude. 1392. urtean, Pedro Miguel Bertiz-en eskuetan gelditu zenetik, jauntxo asko pasa da bertatik eta, hain zuzen ere, horregatik ustiapen txikiagoa izan dute lur hauek. Bertizko jauregiaren inguruan 1847. urtean sorturiko jardin botanikoa dago.



## ✓ URBASA-ANDIA

*Babes-maila:* Parke Naturala  
*Izendapena:* 1997ko otsaila  
*Azalera:* 21.408 ha  
*Kokalekua:* Nafarroako iparraldea. Iparraldera Sakanako bailara du, ekialdera Goñi, hegoaldera Guesalazko bailara, Lezaun eta Abarzuza eta mendebaldera, berriz, Araba.

*Ezaugarriak:* Artzantza eta basogintzaren kudeaketa ez dira berriak mendi hauetan. Aspaldiko lanbide hauek, bertako baliagaiak arrazionalki ustiatuz, gaur egungo paisajearen aitzindariak dira. Prozesu luze eta eztabaidatsu baten ondoren izendatu zuten Parke Naturala.

Artxibokoa



A. Bengoa Ansa

J. Larrañaga



J. Larrañaga



Jakina da, oro har, lehen sektorearen egoera ekonomikoa ez dela nahi genukeen bezain ona eta era guztietako arazoak dituela.

tizko parkea Parke Natural izendatu zuten. 1986-87 urteetan, Nafarroako lurralde antolaketak ahalbidetu zituen legeri espezifikoak eratu zenean, hainbat babes-eredu edo figura berri sortu zen: Erreserba Integrala, Erreserba Naturala, Enklabe Naturala eta Aisialdirako Ingurune Naturala. Geroztik Nafarroan hiru erreserba integral (Lizar-doia, Ukardi eta Aztaparreta), 38 erreserba natural, 26 enklabe natural eta aisialdirako bi ingurune natural dauzkagu.

laz Nafarroako Ingurune Naturalen 9/1996 Legea onetsi zen eta Nafarroan ingurune babestuen inguruan zegoen Legeri eta arautegi guztiak integratu eta nahaspila guztia argitu egin zen. Lege berri horren lehen uzta Urbasa-Andiako Parke Naturala (1997ko otsaila) izan da.

## Kudeaketa korapilatsua

Jakina da, oro har, lehen sektorearen egoera ekonomikoa ez dela nahi genukeen bezain ona eta era guztietako arazoak dituela. Berrikuntza asko gertatzen ari den une honetan, derrigorrezkoa da zein eratako nekazaritza-eredu bultzatu nahi dugun ongi finkatzea. Asmo horrekin eratzten dira Baserrialdeko Estrategi Planak eta garapen orekatua bultzatzeko egitasmoak.

Naturgune babestuen baitan garatzen den iharduera orok, ordea, bertako arautegi espezifikoak izaten du, aipaturiko EKZP horretan biltzen dena. Naturaren kontserbazioak eragin politiko, ekonomiko, soziologiko eta abar luzea dituelako, EKZPa osatzeko garaian, nekazari, abeltzain, basozain, mendizale, administrazio,

unibertsitate eta ingurune bakoitzean zeresana duen orok hartzen du parte, patronatua osatuz. Ez da erraza izaten, ordea, denengustuko egitasmoak prestatzea eta askotan liskarrak eta eztabaidak sortzen dira.

Garbi dago nekazaritza-iharduerak ekonomikoki bideragarriak izatea ez dela nahikoa eta ekologikoki ere errentagarriak diren ustiapen-ereduak bultzatu behar direla. Baina, nola neurtzen da errentagarritasun ekologikoa? Nola lehiatu behar du, epe motzean ahalik eta diru-iturri handienak lortzen saiatzen den merkatu batean, "ekologikoki" oso aberatsa den nekazari horrek? Izan ere, zenbait gauza baloratzeko unean, adjektibo politak erabiltzen ditugu, baina bada garaia hauek ere zenbakitan eta dirutan neurtzeko.

# NATUR BALIABIDEAK BABESTEKO ASMORIK BA OTE?



uskal Herrian Parke Natural hitzak, denbora gutxian ezezagun izatetik, gure etxe ingurua izendapen horren barruan egotera tokatu zaigu, baina moduak eta moduak daude prozesu hau denboraz eta behar den bezala egiteko. Horrela izan ezean, justu lortu nahi denaren kontra joan baikaitzke. Hau da, inguru bat bere natur baliabideen aldetik aberatsa dela ikusten bada eta babes-neurriak jarri behar badira, lehenengo eta behin baliabide horiek horrela mantendu dituen sektoreekin lan sakona egin behar da, beraiek ere partaide zuzenak izan daitezten. Prozesu luze horren ondoren, bigarren eztabaida dator: Parke Naturalaren izendapena zertarako? Ingurune horretako Natur Baliabideak babesteko? Ingurune hori bisitarien "errekiamo" bilakatzeko? Edota, biak batera egiteko? Hor egiten dugu topo.

Egia esan, Natur Baliabideen Antolamendua egitea ezinbestekoa da edozein lurraldetan, ez soilik Parke Naturaletan, eta Antolamendua serio hori egiteke dago Euskal Herrian. Baina jo dezagun gure gaira. Gaur egun Euskal Herrian izendaturik dauden Parke Naturaletan eta izendatu nahi dituztenetan, garbi ikusten da arestian aipaturiko bi helburuak batera bete nahi dituztela (Natur Baliabideak babestu eta erabilera publikorako prestatu), nahiz eta jendeari adierazteko garaian, bertako natur baliabideak babestea izaten den erabiltzen duten helburu bakarra. Halere, egunez eguneko ihardueran garbi azaltzen da kontrakoa, hau da, erabilera publikoa ohizko erabileren aurretik jartzen dela. Horrek epe luzera faktura latza pasa diezaioke gure herriari, Natur Baliabideen iraupena laburtuz.

Garbi eduki behar dugu Parke Natural bezala izendatu diren inguruneen oinarritzko iharduera nekazaritza, abeltzantza eta basogintza direla batik bat eta garbi eduki behar dugu, halaber, lehen sektore horien egoera oso txarra dela bultzatzen ari den Nekazaritza Politika medio, nekazaritza oso leku zehatzetan kontzentratzen ari baita. Hori ikusirik, hona nire galdera: mantendu nahi al ditugu ingurune horietan aipatu iharduerak? Erantzuna baiezkoa baldin bada, ingurugiroarekin bateragarria den nekazaritzaren alde egin behar dugu apostu, horrek suposatzen duenarekin; gainerakoan, inguru horretako baserritarrak eta biztanleak zerbitzu-ihardueratan murgilduko dira buru-belarri. Nekazaritza-eredu horren alde ez dugu Parke Naturaletako eremuetan soilik aritu behar, lurralde osoan baizik. Bestela, Parke Naturalak Euskal Herriko 10 irla isolatu izango dira eta horien benetako helburu nagusia Natur Baliabideak babestea bada, gaitzerdi.

**Marta Agirrezabala**

Biologoa eta Nekazarien aholkularia

**Parke Naturaletako ohizko iharduerak mantendu nahi baditugu, ingurugiroarekin bateragarria den nekazaritzaren alde egin behar dugu apustu. Gainerakoan, ...**

J. Larrañaga



Arazo hauei konponbidea eman nahian sortu ziren konpentsazio-sistemak: ingurugiroari kalte gutxiago sortzeagatik, nekazari, abeltzain edo basoa duen batek galtzen duen dirua, administrazioetik errekupe ratzen du. Honelako egitasmoak Europa mailako Arautegietan eta Parke Naturaletako kudeaketa ereduetan ere aurkitzen dira. Dena den, sistema hauen funtzionamenduari

buruzko iritzia oso desberdina izango da administrazioari ala nekazari bati galdetuz gero. Edonola ere, naturaren kontserbazioan, nekazariak partehartze aktiboa duten unetik, gizateriarentzat lanean ari dira eta, ondorioz, zentzuzkoa da nekazariak denon patrikako dirua eskuratzea. Baserritarrak izan dira ingurune babestuetako protagonistak orainokoa, onerako eta txarrerako.

Baina gaur egun gero eta garrantzi handiagoa du turismoak ingurune babestuetan eta, horregatik, gero eta erantzukizun handiagoa du gutariko bakoitzak bertako kudeaketan.



\* Biologian lizentziatua